

Buruketak

Elenek 15 egunetan egin du lan supermerkatu batean. 705 € kobratu ditu. Zenbat ordaindu diote lanegun bakoitzeko?

Naroak 125 €-ko sakelako telefono bat erosi du. 30 €-ko beherapena egin diote, telefono zaharra emateagatik. 50 €-ko 2 billete eman ditu ordaintzeko. Zenbat diru jasoko du bueltan?

Irati eta Jokin liburu zaharren bilduma egiten ari dira. Iratik 24 liburu ditu, eta Jokinek, berriz, Iratik baino hiru aldiz liburu gehiago. Zenbat liburu dituzte bien artean?

Iñigok 10 €-ko billete bat zuen. Gaur, 8,25 €-ko iratzargailu bat eta 1,46 €-ko grapagailu bat erosi ditu. Zenbat diru geratu zaio erosketaren ondoren?